

Bizikleten konponketa



Gipuzkoa Etorbidea,
25 behea
17 24 88 telefonoa.



ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN
SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 38 24

OUTUMURO KAFETEGIA

- KAFE BEREZIAK
- AUKERA HAUNDIA
- TE ETA
- INFUSIOETAN
- TARTA NATURALAK

Quetzal

Opari denda

Goienkale

ERMUA

Sallabenteko Gazteak, auzoko umiak animatzen

Sallabenteko eskoletako patixuan ta aspaldi lehenao Iñaxioren bodegia izandakuaren inguruan, zapatu arratsaldero sekulako animaziñua ikusten da. Olgatzeko, kantatzeko ta ondo pasatzeko asmuakin datozen auzoko umiak dia.

Lau terdixak dia. Eskoletako patixuan umiak, gaztiak ta guraso batzuk dagoz.

Tartian beste gazte batzuk, harek baiño nagusiauak. Azkenez, esplikaziñua entzun eta gero, umiak aintxixiketan urtetzen dabe. Heuren auzua ta inguruak hobeto ezagutzeko jolas bat eittera doiaz. Jolasaren nundik norakuak astiak aurretik pentsatzen dittuez monitore taldeko 18 lagunen artian. Txitxo, Jabi, Cesar, Rikar, Rebeka, Txibas, Igor... talde honetako partaidiak dia. 19-20 urte bittartian dagoz ta gehixengua txikitatik dago taldiari lotuta. Lagun talde haundi bat dia ta heuren esanetan "edozer gauza eitteko danok danon premiñia daukagu".

Filosofia basiko bat definidu dabe ta umiekin egotean ekologia, biolentzixa eza ta alkarlana zaintzen ahalegintzen dia. Oin momentuan heuren kezkarik haundixena, telebistako "Dragoi Bola" eta antzerako

marrazkixak umiengan sortzen daben biolentzixa da. Esan doskuenez "hemendik urte batzutara, gizartia biolentzuaua dala ikustean, alperrikua izango jaku damutzia".

"Taldera datozen neska-mutilak, heuren borondatez etorri arren, sarritan olgatzera animatzia kosta eiitten jaku". Honeri gehitzen doutsienez "gaurko umiak ez dakixe jolasten. Dana aspergarrixa eitten jakue. Ahua zabaldu orduko, eskatutako edozer aurrian eukitzen dabenez, imagiñaziñua zertarako landuko dabe, ba?".



SANTOS VEGA

Taldearen eguna oso animatua izan zen.

arteko tirabirak baretzen dabezen pertsonak horretan jarraitzen badabe, herri honetan gauza ikaragarriak eiñ leikez". Eskolaren eraginez, auzuan ume askok dakixe euskeraz, monitoriak dakixen euskarazko kantuak edo esaldixak erabiltzen dittuez. Nagusixen taldietan zaillaua eitten jakue.

Danetariako ekintzak eitten dittuez: Olentzero, urteerak, PINa, auzoko aratustiak, ta urtero, apirilaren 23an, taldearen eguna dala ta, lehiaketak, bazkarixa... txokolatada haundi batekin amaitzeko.

Estibalitz Gonzalez

**"Gaurko umiak
ez dakixe jolasten.
Dena aspergarrixa
eitten jakue"**